




1. Zeluletan bildutako karbono dioxidoa daraman odola eskuineko aurikulara iristen da.

2. Eskuineko aurikulatik, odola eskuineko bentrikulura igarotzen da, eta birika-arterietatik irteten da, birketarantz.

3. Birika-albeoloetan gas-trukea gertatzen da; hau da, odolak karbono dioxidoa kanporatzen du, eta oxigenoa hartzen du.

4. Oxigenatutako odola ezkerreko aurikulara sartzen da, birika-zainetan zehar. Handik, ezkerreko bentrikulura iristen da.